

12/11

irizpena

TRANSEXUALEN ARRETA INTEGRALAREN
Lege Aurreproiektuari buruz

Bilbon, 2011ko ekainaren 30a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena 12/11

I. AURREKARIAK

2011ko maiatzaren 31n, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren idatzia sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Bertan, txostena eskatu zen Transexualen Arreta Integralaren Lege Aurreproiektuari buruz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legeko 3.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Berehala bidali zitzairen txostenaren kopia Batzordeko Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamen eta iritziak igortzeko eta Lan Batzorde egokiari horien berri emateko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudian ezarritakoaren arabera.

Aipatutako Batzordea 2011ko ekainaren 22an batu zen, Irizpen Aurreproiekturako lehenengo proposamena eztabaidatze aldera. Egun horretan bertan, Batzordeak Irizpen Proiektu hau onetsi zuen eta Euskadiko EGABen 2011ko ekainaren 30eko Osoko Bilkurara bidali da eta bertan aho batez onetsi da.

II. EDUKIA

Lege Aurreproiektuari buruzko testuak Arrazoen azalpena, 18 artikulua, xedapen gehigarri 1 eta 3 azken xedapen dauzka.

Arrazoen azalpena

Azalpenaren hasieran adierazi denez, transexualitatea ez da egungo fenomeno; oso antzinatek existitzen da, kultura desberdinetan, eta *transsexual* terminoa 1940an hasi zen erabiltzen, jaiotzatik duten sexuaren eta identifikatuta sentitzen diren sexuaren artean disoziazioa jasaten duten pertsonak izendatzeko. 1980. urteaz geroztik, transexualitatea buruko nahasmendu gisa sailkatuta dago, eta gaur egun, oraindik ere, Osasunerako Mundu Erakundearen (OME) buruko gaixotasunei buruzko nazioarteko esku-liburuek “sexu-identitatearen nahasmendu” edo “genero-identitatearen desordena” gisa jaso eta sailkatzen dute. Sailkapen

horren ondorioz, genero biologikoaren eta gizartean egotzitako generoaren arteko disoziazioari lotutako diagnostiko medikoa ezarri da: genero-disforia. Baina genero-disforia eta transexualitatea ez dira termino baliokidetzat jo behar. Izan ere, transexualitateak jaiotzako sexu biologikoaren arabera gizartean egozten zaigun generoarekin ez identifikatzea azaltzen du, eta, genero-disforiak, aldiz, transexualek egunero jasan behar dituzten oztopo sozial eta kultural anitzen ondorioz sentitzen duten ondoez larria baino ez du adierazten. Transexual orok ez du disforia eta, halakorik duten guztiek ere ez dute maila edo modu berean jasaten.

Jarraian azaldutakoaren arabera, nahiz eta gaixotasunei buruzko nazioarteko sailkapen diagnostiko nagusiek buruko nahasmendu eta gaixotasun gisa jasotzen duten genero-disforia, ospe handiko geroz eta aditu eta ikertzaile gehiagok uste dute etiketa patologiko horiek kendu behar direla.

Osasun-sistemari buruz adierazitakoari jarraiki, transexualek ez dute arreta eskatzen patologia edo nahasmendu bat jasaten dutelako, baizik eta beren funtsezko eskubideak askatasunez garatzeko dituzten oztopo sozialengatik eta zailtasun horiek beren bizitzan eragiten duten ondoezagatik. Medikuzientzia modernoak ezarri duenez, gizaki baten sexua errealtate konplexua da, gertaera kromosomiko, gonadal eta hormonalen kate batek baldintzatzen du, eta gertaeren kate horrek batzuetan ete-nak eta diferentziazioak jasaten ditu, sexu bateko eta besteko ezaugarri gurutzatuak dituzten pertsonak sortuz. Medikuntzak eta Psikologiak egiaztatu egin dute pertsona batzuek kanpoko itxura beren sentitzen duten sexura egokitu nahi dutela, beren jaiotzako ez den sexua sozialki bereganatuz, erabaki hori hartzeko aurretiazko kanpo-arrazoi fisiko nabarmenik gabe.

Goian azaldutako guztiaren ondorioz, eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ezarri zuenez, sexuaren kontzeptu hertsiki biologikoa behar-rean, alderdi psikosoziala hartu behar da kontuan, batez ere. Horrela, pertsona baten izaera osatzen duten ezaugarri psikologikoak daudela aitortzen da eta adimenari eta giza espirituari burujabetza ematen zaie, edozein alderdi fisikoren gainetik. Horren harira, ezin dugu ahaztu Yogyakarta-tako Printzipioek azaldutakoa, Giza Eskubideen Legeria Sexu Orientazioari eta Genero Identitateari buruzko gaietan Aplikatzeari buruz:

“Kontrakoa baieztatzen duen ezein sailkapen gorabehera, pertsonaren sexu orientazioa eta genero identitatea ez dira, berez, osasunaren nahasmenean, eta, horrenbestez, ez dute mediku sendabide nahiz artarik behar, eta ez dira zertan ezabatu”.

Horrela, azken urteetan aurrerapenak egon dira sexu-identitatearen despatologizazioa aldarrikatzeko orduan, bi alderditan. Batetik, nahasmenduaren sailkapena kendu nahi da gaixotasunen esku-liburutik; eta, bestetik, eskaera egin da transexualek eskatu ditzaketen mediku-tratamenduetan beraiek protagonista eta subjektu aktibotzat jo daitezen, beren kabuz, autonomiaz eta beren gorputzekiko erantzukizunez erabakitzeke gaitasuna eta legitimitatea dutela.

Aldarrikapen horiekin batera, eta genero-identitateari dagokionez, azken urteetan ikuspegi sozial eta juridiko berri bat sortu da, pertsonen genero-adierazpen askea funtsezko giza eskubide gisa aitortzen duena eta identitate transexualak buruko nahasmendu edo gaixotasun organiko gisa sailkatzen jarraitzea pertsonen giza eskubideak urratzea dela baieztatzen duena.

II. epigrafearen hasieran adierazienez, Espainiako Estatuak, nazioarteko jarrera guzti horiek ikusita, pertsonen sexuari buruz erregistroan egiten den aipamenaren zuzenketa arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 Legea onetsi zuen, eta, horrek, era berean, interesdunaren izen propioa aldatzeko aukera ezartzen du, aldarrikatutako sexuarekin bat etor dadin. Orainsuago, 2010eko martxoaren 15ean, Diputatuen Kongresuan, Jaurilaritzak, Legebiltzarraren interpelazioaren aurrean, “transexualitea buruko nahasmenduko sailkapenetik kentzeko beharra partekatzen duela” adierazi zuen.

Arrazoen azalpenarekin jarraitzeko, kontsultatu zaigun Aurreproiektu arauemailearen xedea zehazki 2007ko estatuko araudi mugatua handitzea dela adierazi da. Horretarako, Autonomia Estatutuko I. tituluan jasotako eskumenak erabiliko dira, transexualen egoerari eragiten dioten hainbat alderditan; eta gogorarazi da abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoko 9.2 artikulua araberako, euskal botere publikoek herritarren funtsezko eskubide eta betebeharrak ondo betetzen direla bermatu eta zaindu behar dutela eta norberaren edo taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izateko baldintzak sustatu eta oztopoak ezabatu ahal izateko neurriak hartu behar dituztela.

Lege Aurreproiektuko III. epigrafeak dioenez, talde horren espezifikotasunei arreta eman nahi zaie, beren berezitasunari erantzuna emanaz eta transexualek beren eskubide mediko eta sozialak bermatzeko orduan duten berdintasun-izaerari eutsiz. Halaber, Espainiako Konstituzioko 9.2 artikuluko espirtua jasotzen du, honakoa dioenean: "botere publikoei dagokie norberaren edo taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izateko baldintzak sustatzea, gozatzeko zailtasunak edo eragozpenak jartzen dituzten oztopoak ezabatzea eta herritar guztiei erraztasunak jartzea bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko".

Hori dela eta, aurkeztu den arau autonomikoaren helburua integrala izatea da; izan ere, bere xedea transexualen taldeak gainerako euskal herritarren bizi-baldintza berberak izatea da. Eta, horretarako, medikuntzako neurriez gain, lan-eremuan diskriminazio positiborako aurreikuspenak ere beharrezkoak dira, lehendik dauden sinergieez baliatuz. Halaber, hezkuntza eta funtzionarioen eremuak ere sentikorrek izan behar dira Lege honetan jasotako dibertsitateari dagokionez.

Xedapenak

Lehenengo hiru artikulua jasotzen ditu **I. kapituluak**, eta, era berean, zenbait **xedapen** orokor ere azaltzen dira, Legearen xedea, aplikazio-eremua eta transexual-izaeraren definizioa deskribatuz.

Hori horrela, Lege honen xedea honakoa dela aipatu da: transexualek Euskal Administrazio Publikoen eskutik beren behar mediko, psikosozial, juridiko eta bestelakoetarako arreta integrala eta egokia jasotzeko duten eskubidea bermatzea, gainerako herritarren baldintza berberetan. Halaber, beren askatasuna bizitza sozialeko eremu desberdinetan, eta, bereziki, zerbitzu publiko desberdinetan erabil dezaketela bermatu nahi da, orokorrean.

II. kapituluan 4-7 artikulua jasotzen dira eta **transexualitatearen gainerako politika publikorako oinarriak** ezartzen dira. Horretarako, genero-identitatearen ondoriozko jarrera baztertzailen kontra hartu eta garatu beharreko zenbait neurri aztertzen dira; informazio, orientazio eta aholkularitzaarako zerbitzua ezartzen da transexualentzat, beren senideentzat eta ingurukoentzat; eta, azkenik, sexua berrezartzeko prozesuak irauten

duen bitartean transexualek administrazio-dokumentazioa izateko aukera jasotzen da, gizartean hobeto integratzen direla eta sufrimendu edo diskriminazioko egoerak saihesten direla bermatzeko.

III. kapituluak, transexualen osasun-arretari buruzkoan, 8-13 artikulua azaltzen dira eta transexualek osasunaren eremuan dituzten eskubideak deskribatzen dira. Era berean, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren barruan transexualitatearen gaineko erreferentzia-unitatea arautzeko aukera aurreikusi da. Medikuntza, erizaintza, psikologia, psikoterapia eta sexologiako arretako profesionalek eratuko lukete. Transexualei arreta emango dien gida klinikoa araudiaren arabera sortzeko aukera ere aipatu da, ukitutako eremuetan adostasun profesional nahikoa arautu ahal izateko. Azkenik, beren-beregi azaldu dira adin gabeko transexualen eskubideak eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren bidez tratamendu desberdinetako emaitzei buruzko estatistikak sortzeko betebeharra azaldu da. Horretarako, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren jabetzakoa izango den fitxategi automatikoa sortu beharko da, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako eran.

12/11*i*

IV. kapituluak, Transexualen lan-bizitzari buruzkoan, 14 eta 15 artikulua jaso dira eta irizpide orokor bat ezarri da, Euskal Administrazio Publikoek eta horiei atxikitako organismo publikoek genero-identitatearen ondoriozko bereizkeriak ez dagoela bermatzeko; horren harira, bereizkeria edo diskriminazio positiborako plan eta neurri egokiak egin eta aplikatuko dira, transexualen kontratazioa eta enplegua sustatzeko.

V. kapituluak, hezkuntza-sisteman transexualitateari eman beharreko trataerari buruzkoak, 16-18 artikulua jasotzen ditu eta hezkuntza-eremuan transexualitatearen eta transexualen gainean egin beharreko jarduera batzuk ezartzen ditu.

Lehenengo xedapen gehigarriak 6 hilabeteko epea ezartzen du, Legea indarrean jartzen denetik hasita, transexualen arreta integralaren gida klinikoa egiteaz arduratuko den adituen batzordea eratzeko.

Azken xedapenetako lehenengoak 6 hilabeteko epea ezartzen du, Lege hau indarrean jartzen denetik hasita, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren barruan transexualitatearen gaineko erreferentzia-unitatea arautzeko.

Azken xedapenetako bigarrenak Legearen arauzko garapenari buruz hitz egiten du.

Azken xedapenetatik hirugarrenak arauaren indarraldia arautzen du.

III. OHARRAK

III. 1 Ohar orokorrak

Arrazoen azalpenean azaldu den bezala, *transexual* terminoa 1940an hasi zen erabiltzen, jaiotzatik duten sexuaren eta identifikatuta sentitzen diren sexuaren artean disoziazioa jasaten duten pertsonak izendatzeko; eta, 1980az geroztik, transexualitatea buruko nahasmendu gisa sailkatzen da. Gaur egun, OMEren buruko gaixotasunei buruzko nazioarteko esku-liburuek “sexu-identitatearen nahasmendu” edo “genero-identitatearen desordena” gisa jaso eta sailkatzen dute. Ondorioz, disoziazio horri lotutako diagnostiko medikoa ezarri da: genero-disforia.

Hala ere, genero-disforia eta transexualitatea ez dira termino baliokide-tzat jo behar. Izan ere, transexualitateak jaiotzako sexu biologikoaren arabera gizartean egozten zaigun generoarekin ez identifikatzea azaltzen du, eta, genero-disforiak, aldiz, transexualek egunero jasan behar dituzten oztopo sozial eta kultural anitzen ondorioz sentitzen duten ondoez larria baino ez du adierazten. Baina transexual orok ez du disforia eta, halakorik duten guztiek ere ez dute maila edo modu berean jasaten.

Horregatik, nahiz eta gaixotasunei buruzko nazioarteko sailkapen diagnostiko nagusiek buruko nahasmendu eta gaixotasun gisa jasotzen duten genero-disforia, ospe handiko geroz eta aditu eta ikertzaile gehiagok uste dute etiketa patologiko horiek kendu behar direla.

Horrenbestez, azken urteetan aurrerapenak egon dira, batetik, nahasmenduaren sailkapena kendu nahi delako gaixotasunen esku-liburutik; eta, bestetik, eskaera egin delako transexualek eskatu ditzaketan mediku-tratamenduetan beraiek protagonista eta subjektu aktibotzat jo daitezzen, beren kabuz, autonomiaz eta euren gorputzekiko erantzukizunez

1.-“Yogyakartako Printzipioak. Giza Eskubideen Nazioarteko Legeria Sexu Orientazioari eta Genero Identitateari buruzko gaietan aplikatzeko printzipioak” agirian jasotakoaren arabera, genero-identitatea deitzen zaio pertsona bakoitzak generoari buruz sakonki sentitzen duen barne-bizipenari (hori jaiotzatik esleitutako sexuarekin bat etor daiteke edo ez), gorputzaren bizipen personalari (gorputzaren itxura edo funtzioa aldatzea ekar lezake, medikuntzako, kirurgiako edo bestelako alderdie-tako bitartekoen bidez, betiere ere aukera hori askatasunez erabaki bada) eta beste genero-adierazpen batzuei, janzkera, hizkera eta jokamoldea barne.

erabakitzeko gaitasuna eta legitimitatea dutela. Aldarrikapen horiekin batera, eta genero-identitateari dagokionez, azken urteetan ikuspegi sozial eta juridiko berri bat sortu da, pertsonen genero-adierazpen askea funtsezko giza eskubide gisa aitortzen duena. Halaxe erakusten duten nazioarteko hainbat txostenek. Horien artean, *Yogyakartako Printzipioak, Giza Eskubideen Nazioarteko Legeria Sexu Orientazioari eta Genero Identitateari buruzko gaietan aplikatzeko printzipioak* izenekoak azpimarratu behar da². Printzipio horiek baieztatzen dutenez, identitate transexualak buruko nahasmendu edo gaixotasun organiko gisa sailkatzen jarraitzea pertsonen giza eskubideak urratzea da.

Espainiako Estatuak, nazioarteko jarrera guzti horien ildotik, pertsonen sexuari buruz erregistroan egiten den aipamenaren zuzenketa arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 Legea onetsi zuen; eta, oraintsuago, 2010ean, Jaurlaritzak, Legebiltzarraren interpelazioaren aurrean, “transexualitea buruko nahasmenduko sailkapenetik kentzeko beharra partekatzen duela” adierazi zuen.

Goian azaldutako guztia kontuan hartuta, Euskadiko EGABek positiboki baloratzen du kontsultatu zaigun aurreproiektu arauemailea. Izan ere, Autonomia Estatutuko I. tituluan jasotako eskumenak erabiliz transexualen egoerari eragiten dioten hainbat alderditan, honakoa planteatu da beste helburu batzuen artean: 2007ko estatuko araudia handitzea, transexualek beren behar mediko, psikosozial, juridiko eta bestelakoetarako arreta integrala eta egokia jasotzeko duten eskubidea zaindu eta bermatuz eta diskriminazioaren aurkako neurriak hartuz.

Atsegin handiz egiaztatu dugu, era berean, Arrazoen azalpenak oso ondo azaltzen dituela identitate transexuala despatologizatzeko eta pertsonen genero-adierazpen askea funtsezko giza eskubide gisa aitortzeko aldarrikapenean dauden etapa desberdinak eta egindako aurrerapenak. Horregatik dauka arau honek izaera integrala, transexualek jasaten dituzten diskriminazio guztiak gainditzeko orduan aurre egiteko eta transexualen taldeari gainerako euskal herritarren bizi-baldintza berberak

2.-Pertsona orok du giza eskubideak izateko eskubidea. Beldintasunerako eskubidea eta diskriminatua ez izatekoa. Nortasun juridikoa onartua izateko eskubidea. Bizitzeko eskubidea. Norberaren segurtasunerako eskubidea. Pribatutasunerako eskubidea. Hautamenez atxilotua ez izateko pertsona ororen eskubidea. Epaiketa zuzena izateko eskubidea. Askatasunik gabe den pertsona orok gizalegezko tratua jasotzeko eskubidea. Ez torturarik, ez tratua eta zigor krudel, jasangaitez edo iraingaririk ez jasateko pertsona ororen eskubidea. Pertsonen esplotazio eta salerosketa modu guztietatik babestua izateko eskubidea. Lan egiteko eskubidea. Gizarte segurantzak eta gizarte babeserako bestelako neurriak izateko eskubidea. Bizi-maila egokia izateko eskubidea. Etxebizitza egokia izateko eskubidea. Hezkuntzarako eskubidea. Ahalik eta osasunik onena izateko eskubidea. Mediku-gehiagikerietatik babestua izateko eskubidea. Irizki eta adierazpen askatasunerako eskubidea. Bakean batzartu eta elkartzeko askatasunerako eskubidea. Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna izateko eskubidea. Aske mugitzeko eskubidea. Asiloa lortzeko eskubidea. Familia sortzeko eskubidea. Bizitza publikoan parte hartzeko eskubidea. Kultur bizitzan parte hartzeko eskubidea. Giza eskubideak sustatzeko eskubidea. Baliabideak eskuratu eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea. Erantzukizuna.

bermatuko dizkien ekintza positiboak ezartzeko, medikuntzan, gizartean nahiz lanean.

Nolanahi ere, aurreproiektuko edukiari buruzko ohar batzuk egiteari ezinbestekoa deritzogu.

“Diskriminazio positiboari” buruzko erreferentziak

Lege Aurreproiektuak “diskriminazio positiboari” buruz jasotzen dituen erreferentziei dagokienez:

Arazoen azalpenean (6 eta 7. orriak)

12/11j

“Horretarako, medikuntzako neurriez gain, lan-eremuan diskriminazio positiborako aurreikuspenak ere beharrezkoak dira, lehendik dauden sinergieiz baliatuz. Halaber, hezkuntza eta funtzionarioen eremuak ere sentikorrek izan behar dira Lege honetan jasotako dibertsitateari dagokionez.”

“IV. kapituluan irizpide orokor bat ezarri da, Euskal Administrazio Publikoek eta horiei atxikitako organismo publikoek genero-identitatearen ondoriozko bereizkeriarik ez dagoela bermatzeko; horren harira, bereizkeria edo diskriminazio positiborako plan eta neurri egokiak egin eta aplikatuko dira, transexualen kontratazioa eta enplegua sustatzeko.”

15. artikulua

15. artikulua.- Diskriminazio positiboaren neurriak lanean.

Euskal Administrazio Publikoek diskriminazio positiborako lan eta neurri egokiak egin eta aplikatuko dituzte, egun dauden enplegugarritasun-mekanismoen barruan, transexualen kontratazioa eta enplegua sustatzeko.

Nabarmentzekoa da Europar Batasunak duela asko adierazi zuela “diskriminazioa” zuzenbidearen aurkako kasuetarako soilik erabili beharko litzatekeela, eta, ondorioz, lehen “diskriminazio positiboa” deitzen zena-
ren ordez, “ekintza positiboa” terminoa proposatu zuen.

Hala adierazten dute Arraza eta jatorri etnikoa kontuan izan gabe pertsonen tratu berdina emateko printzipioaren aplikazioari buruzko ekainaren 29ko 2000/43 EE Zuzentarauak eta lanean eta jardunean tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzen duen azaroaren 27ko 2000/78 EE Zuzentarauak.

Horregatik, aztertutako lege-proiektuaren terminologia egokitzea komeni da, araudi europarraren irizpideari jarraiki, are gehiago kontuan hartzen badugu kontzeptua argitzeko aurrera pausua dela. Horrenbestez, diskriminazio kontzeptua zuzenbidearen aurkakoak aipatzeko gordeko da eta *ekintza positibo* deitu beharko zaie legediak sustatzen dituen tratu desberdinei, benetako berdintasunaren alde.

III. 2 Ohar espezifikoak

12/11 

Aurreproiektuaren izena

“Transexualen Arreta Integralaren Lege Aurreproiektua”

“Arreta integrala” esatean osasun-eskubideez soilik ari dela ematen du. Aurreproiektuan ikus daitekeenez, ordea, hainbat eskubide aitortu behar zaizkie transexualei eta osasunerako eskubidea beste batzuen arteko bat baino ez da.

Izen orokorragoa ematea egokiagoa litzateke, adibidez:

- Nafarroan araututakoa (Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legea), edo
- Hainbat lege-proposamen, besteak beste, Madrilgo Erkidegoak aurkeztutakoa (Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko Lege Proposamena), edo
- Legez besteko proposamenak, adibidez, Andaluziakoa (Transexualen bazterkeriarik eza edo eskubideak bermatzeko Legez besteko Proposamena).

Arrazoen azalpena

Testuan zehar

Ikusi ahal izan dugun bezala, lege batean beharrezkoa den segurtasun juridikoa ezabatu egiten da puntu batean. Generoaren eta sexuaren arteko nahastearekin lotutako puntua da, batez ere Arrazoen azalpeneko lehenengo zatian.

I. epigrafea. Bigarren paragrafoa

Azken zatiak honakoa dio:

12/11j

“Nahita ez bada ere, transexualen giza eskubideen urraketa ugari daudela egiaztatu da: legez kanpoko hilketak, tortura eta tratu txarrak, erasoak eta sexu-bortxaketak, pribatutasunaren inbasioa, hautazko atxiloketak, enplegurako eta hezkuntzarako eskubideen ukapena eta diskriminazio larria giza eskubideez gozatzeko orduan.”

Kontrakoa egiaztatu ezean, baieztapen hori ezabatu edo beste modura idaztea komeni dela uste dugu. Izan ere, gure ustez, egoera horiek ez dira geratzen gure inguruan.

I. epigrafea. Hirugarren paragrafoa, azken zatia

- Batetik, “formula patologikoa” adierazpena hobetu beharko litzatekeela uste dugu, ez baitirudi modu egokian idatzita dagoenik.
- Bestalde, honako testua ezabatzeko gomendatzen dugu:

Norbaitek defendatzen al du amatasuna bezalako inguruabar pertsonal bat, tratamendu integraleko milaka klinika eta ospitale dituen, gaixotasun bat dela, nahiz eta batzuetan ebakuntza kirurgikoa (zesarea) eskatzen duen?

Izan ere, batetik egindako galdera desegokia iruditzen zaigu, legedia idazteko teknikaren ikuspegitik, Arrazoen azalpenean ez baitira galderak egiten, berau idatzi dutenen asmo ona eta gaiarekiko duen koherentzia edo jatorria gorabehera. Eta bestetik, eta hau ere garrantzitsua da,

helburua transexualitatea ez dela gaixotasun bat defendatzeko babes-argumentu gisa jardutea den arren, konparazioa egitean gaiarekin zerikusirik ez duen elementu bat sartu da, amatasuna.

Gure iritziz, zati hori ezabatzeak ez lioke koherentzia kenduko testu osoari; are gehiago, paragrafo horrek eteten duen jarraitasuna bermatuko luke.

II. epigrafea. Lehenengo paragrafoa

Joan Herrera diputatuaren legebiltzar-interpelazioari egindako aipamenaren idazketa ezabatu edo behintzat aldatzeko proposatzen dugu. Izan ere, testuingurua argitzen lagun dezakeen arren, Lege baten Arrazoen azalpenean lekuz kanpo dagoela ematen du.

12/11*i*

II. epigrafea. Bigarren paragrafoa, azken zatia

Berriz ere ikusi dugu puntu batek lege batean beharrezkoa den segurtasun juridikoa ezabatzen duela. Kasu honetan, EAEn bizitzeko baldintzari buruzkoa da nahastea.

“... 2007ko estatuko araudi mugatua hedatzeko asmoz egin da, hain zuzen ere, testu arauemaile hau, eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren transexual guztiei aplikatu dakieke, beren legezko edo administrazioko egoera edozein dela ere.

Gure aburuz, ...*beren legezko edo administrazioko egoera edozein dela ere...* esatean, atzerritar oro Lege honen aplikazio-eremuan sartzen dela esan nahi du, betiere Euskadin errolatuta badago, atzerritar izaerarekiko duten administrazioko egoera erregularra edo irregularra den albo batera utzita.

Horregatik, segurtasun juridiko handiagoa bermatzeko, “*bizi diren*” beharren “*errolatuta dauden*” jartzea eta “*beren legezko edo administrazioko egoera edozein dela ere*” ezabatzea komeni dela uste dugu.

2. artikuluan (aplikazio-eremua) ere ikus daiteke alderdi hori.

II. epigrafea. Laugarren paragrafoa. Azken zatia

Honakoa dio:

“... Lege honen helburua gizakien inguruabar edo ezaugarri pertsonal edo sozialen ondoriozkoak diren eta legedian dirauten diskriminazio guztiak gainditzten lagundu eta aurrera egitea da, bai eta bereizkeriarik ezaren, nortasunaren garapen askearen eta pertsona, familia edo taldeen babes sozial, ekonomiko eta juridikoaren printzipio konstituzionalen garapen arauemailea hobetzea, araudia aplikagarria bizi dugun une historiko honetako gizarte-errealitatera egokituz.”

Gure ustez, hedapen handiko asmo-deklarazioa da, baina gero, Legearen artikulua arautzean, transexualei baino ez zaie aplikatzen.

12/11j

III. epigrafea. Bigarren paragrafoa

“Holistiko” hitza beharrean *“integral”* jartzeko proposamena egin nahi dugu.

Horrela, errazago ulertuko da. Izan ere, holistikoki tratatzea tratamendu integrala egitea da, ez soilik zeinu edo sintomak, baizik eta gizakia, osorik.

III. epigrafea. Hirugarren paragrafoa

Hasieran honakoa dio:

“Pertsona guztiak ez dute beren transexualitatea era berean bizi. Ondorioz, transexualen taldean ez da modu homogeenan esku hartu behar.”

Honakoa idaztea proposatzen dugu:

“Pertsona guztiak ez dute beren transexualitatea era berean bizi. Ondorioz, transexualen taldean ez da modu homogeenan esku hartu behar, beste edozein taldetan halakorik egin behar ez den bezala.”

Proposamen honen arrazoa beste talde batzuekiko desberdintasunak saihestea da.

I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Artikulu honetan Legearen xedea mugatzen da:

“Lege honen xedea honakoa da: transexualek Euskal Administrazio Publikoen eskutik beren behar mediko, psikosozial, juridiko eta beste-lakoetarako arreta integrala eta egokia jasotzeko duten eskubidea bermatzea, gainerako herritarren baldintza berberetan. Beren askatasuna bitzta sozialeko eremu desberdinetan, eta, bereziki, zerbitzu publiko desberdinetan erabil dezaketela bermatu nahi da, orokorrean.”

12/11i

Hala ere, idazketan ondorioztatu ahal denez, interpretazio okerra egin ez badugu, gainerako herritarrek ez dituzte transexualen baldintza berberak, aurreproiektuan ematen zaien ekintza positiboaren tratamenduari kalterik eragin gabe.

Ondorioz, akatsak sor ditzaketen interpretazio posiblek ezabatze aldera, idazketa hori zehaztea komenigarria dela uste dugu.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

Artikuluak honakoa dio:

“Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bizi diren pertsona guztiei aplikatuko zaie, transexualak badira, beren legezko edo administrazioko egoera edozein dela ere.”

Batzorde honek bi puntu azpimarratu nahi ditu:

- Batetik, Arrazoen azalpenean adierazi den bezala, biztanle edo egoiliar izaera horrek Lege batean beharrezkoa den segurtasun juridikoa ezabatzen du.

Horregatik, segurtasun juridiko handiagoa bermatzeko, “bizi diren” beharren “errolatuta dauden” jartzea eta “beren legezko edo administrazioko egoera edozein dela ere” ezabatzea komeni dela uste dugu.

- Bestetik, idazketa hobetzeko adierazpen teknikoren bat gehitu beharko litzatekeela iruditzen zaigu. Honakoa proposatzen dugu:

Artikulua honela geratzeko proposamena egin nahi dugu:

“Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan errolatuta dauden pertsona guztiei aplikatuko zaie, transexualak badira, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera.”

12/11j

II. KAPITULUA. Transexualitatearen gaineko politika publikoa ezartzeko oinarriak

4. artikulua. Euskal Administrazio Publikoen tratamendua

Idazketa hobetze aldera, adierazpen tekniko gehitzeko proposatzen dugu. Hori horrela, honako idazketa da gure proposamena:

“Euskal Administrazio Publikoek pertsona bakoitza bere sentitzen duen sexuari dagokion genero-identitatearen arabera tratatuko du, hura ezagutzen dutenean, hala gertatuz gero.”

5. artikulua. Transfobiaren kontrako neurriak

Justiziako eta Zigor Erakundeetako langileak eta poliziak trebatzeko programak ezartzen dituen d) atalari dagokionez,

- Batetik, eskumen aldetik gehiegi mugatzen ari direla uste dugu. Izan ere, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia da, adibidez, epaileei prestakuntza emateko titularra.
- Bestetik, azken puntuari dagokionez, organismo publikoak eta sozietate publikoak sartzeko gomendatzen dugu, eta, horretarako, honako idazketa proposatzen dugu:

“Euskal Administrazio, organismo eta sozietate publikoetako gainerako funtzionarioak, langileak eta osasun-beharginak”.

Horrela 14. artikuluan aurreikusitakoarekin koherente izan ahalko da eta, gainera, euskal sozietate publikoak ere sartuko dira.

III. KAPITULUA. Transexualei eman beharreko osasun-arreta

9. artikulua. Gida klinikoa

2. atalean, eskuliburu psikiatrikoko “tratamendu somatikoa” adierazpena modu ulerterrazagoan idaztea komeni da, posible bada, gaiari buruz ez dakitenek ere uler dezaten. Izan ere, legegileek ondo dakiten bezala, lege ona herritar guztiek (eta ez batzuek soilik) uler dezaketena da.

12/11 

10. artikulua. Transexualen eskubideak

- 1.d) atalean "sexu-orientazioa"³ adierazpena ezabatzea komeni dela uste dugu. Izan ere, legean jorratutakoaz bestelakoa da.
- 2. atalean, gure aburuz, “abertsiozkoa” beharrean “kontrakoa” jar-tzea hobe litzateke, 9. artikuluan egindako arrazoiketa berari jarraiki.

13. artikulua.- Profesionalen prestakuntza

Gure iritziz, ...*kalitatezko prestakuntza espezifikoa*... adierazpenetik ken-du egin behar da *kalitatezkoa* hitza, prestakuntza oro kalitatezkoa dela ulertzen baita, are gehiago hartzaileen profila eta kontratatuko dutenei dagokien erantzukizuna kontuan hartuta.

IV. KAPITULUA. Transexualen lan-bizitza

15. artikulua. Diskriminazio positiboaren neurriak lanean.

15. artikulua.- Diskriminazio positiboaren neurriak lanean.

3.-“Yogyakarta Printzipioak. Giza Eskubideen Nazioarteko Legeria Sexu Orientazioari eta Genero Identitateari buruzko gaie-tan aplikatzeko printzipioak” izeneko agirian jasotakoaren arabera, sexu-orientazioa da norbanakoak bere generokoak diren pertsonenganako edo ez direnenganako, nahiz genero bat baino gehiagokoenganako erakarpen emozional, afektibo eta sexual sakona sentitzeko gaitasuna, bai eta pertsona horiekin harreman estuak eta sexualak izateko gaitasuna ere.

Euskal Administrazio Publikoek diskriminazio positiborako lan eta neurri egokiak egin eta aplikatuko dituzte, egun dauden enplegugarritasun-mekanismoen barruan, transexualen kontratazioa eta enplegua sustatzeko.

Ohar orokorretan azaldu den bezala, Europar Batasunak duela asko adierazi zuen "diskriminazioa" zuzenbidearen aurkako kasuetarako soilik erabili beharko litzakeela, eta, ondorioz, lehen "*diskriminazio positiboa*" deitzen zenaren ordeztuz, "*ekintza positiboa*" terminoa proposatu zuen.

IV. ONDORIOAK

12/11j

Euskadiko EGABen ustez egokia da Transexualen Arreta Integralaren Lege Aurreproiektuaren gaineko tramitazioa, kontsulta-organo honek egin dituen oharrak kontuan hartuta.

Bilbon, 2011ko ekainaren 30ean

O.E. Presidentea
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro Burgos



**CES
EGAB**

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Gran Vía 81, 7. solairua

48011 Bilbao. Bizkaia

www.cesvasco.es

Maketazioa: Cuatrobarras Comunicación

Inprenta: Imprenta Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1700-11